

altza

Antzerkia eta kontzertuak Txalakan

Txalaka Elkartearen zazpi-garren urteurrena dela eta, elkarte honek Kultur Etxearen laguntzarekin hainbat ekintza antolatu ditu aste honetarako.

Ekitaldiak Txalakan bertan egingo dira, era honetan, auzoak antzerki, kontzertu eta kultur ekitaldiak ospatzeko duen leku falta salatu nahi da.

Ostiralean, martxoaren 25ean, antzerkia iragarrita dago. Oraingo honetan Marian



Altzan ekintza kultural ugari izango ditugu astean zehar.

Fernandez antzezlea "La Mujer Sola" lanarekin etorriko da Txalakara arratsaldeko zortziretan. Antzezle honek, Casares Kultur Etxeko Antzerki Tailerreko Ausartak taldean parte hartu baino lehen, "La Mujer Sola" antzezten eman zituen antzerki munduan bere lehen urratsak. Lan honek etxean

geratzen den emakumearen bakardadea isladatu eta salatzen ditu.

Larunbatean, hilaren 26an, Morau, Xabi Montoia eta Altzako Gurutze Beltza musika taldeak kontzertua eskainiko dute elkartearen bertan arratsaldeko zortzietatik aurrera.

Morau Hernaniko kantau-

torea dugu eta poesia munduan ere zenbait lan egindako gizona. Xabi Montoia M-ak desagertutiko rock taldearen abeslaria izandakoa dugu eta orain bakarkako lana aukeratu du. Azkenik, Gurutze Beltza taldeak joko du. Talde hau altzatarra da eta bere lan guztia euskara hutsean egiten duen bakarretakoa.

Ospakizunekin bukatzeko, martxoaren 27, iganderako mendi ibilaldia antolatu da Altzako inguruetan. Irteera Harria parketik egingo da goizeko 8:30etan.

Ondoren, eguerdiko 14:30-etan barrikotea egingo da elkartearen Bazkaria zenbatekoa 1.500 pezeta izango da.

**ALTZA, HERRERA
ETA BIDEBIETAKO
BERRI EMALEA**



LARRAITZ GARMENDIA
TFNOA: 39 12 67

Udaberriko haur festa apirilaren 5, 6, 7, 8 eta 9an ospatuko da Altzan. Orduetgia goizeko 11etatik 13etara eta arratsaldeko 16etatik 18etara izango da.

Ekintzak honako toki hauetan egingo dira: Adiskideak elkartearen biltokian, Larratxoko Eskola Publikoan

eta Jolastokieta Kultur Zentroan. Antolaketa, Adiskideak Atsedeen taldea, Berpiztu, Casares Kultur Etxea, Ipotx, Iratxoak eta Kemetrontxo Atsedeen Taldeak hartu dute parte.

Apirilaren 13-14ean BEHIBIS antzerki taldeak "Un perro grande y peludo" antzezlan

aurkeztuko du Larratxoko eta Casares Kultur Etxeko liburutegietan. Lana arratsaldeko 17:00etan euskaraz eskainiko da eta 18:00etan erdaraz.

ALAI Ikasketak

Txirrita Bertsolaria, 62- Behea. ALTZA Tfnoa.: 39 91 56

- O.H.O.rako laguntza
- Mekanografia
- Informatika
- Dibujo teknikoa

Naiara

oinetakoak

Jose Elozegi 131
HERRERA



Jose Luis Jauregi
Harategia-Urdaitegia

- Bertako haragia eta hautazko urdaitegia.

Txirrita Bertsolaria, 66 ALTZA
Tfnoa.: 39 18 99